

**BIZKAITARRAI-  
BIZKAIERAZ\***

[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)

320n. zenbakia

2006 iraila

**2006**



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

**LAGUNTZAILLE**

## EUSKALERRIAN EUSKERAZ

E U S K E R A Z A L E A K

# 2006-2007 IKASTURTEA

### OGEI TA BEDERATZIGARRENA BIZKAIERAZ IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

**Egunak:** ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

**Orduak:** GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

**Ordaña:** 20.000 PEZETA

**Izena emoteko-tokia:** EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

**Asierea:** URRILLAREN 9'AN

### 39.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

**Días:** LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

**Horas:** MAÑANA, TARDE Y NOCHE

**Curso completo:** 20.000 PESETAS

**Inscripciones:** EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 423 53 22 - BILBAO

**Comienzo:** 9 DE OCTUBRE

LAGUNTZAILEA

COLABORA



bbk=

# ERRIA MENPERATUTA BE, ERRI

Salomon' en ostean bere erria menperatu egin eben, erbesteratu be bai. Makabeo'tarren aldian burua jaso eban., baiña barriri menperatu eben. Kristo etorri zanean be erromatarren menpean egoan. Eta arrezkero munduan zabal bizi izan dira judatarrek, geienetan aurrean erabiliak, nazitarren olokaustoa egoera orren ezaugarri barria dala.

Azkenean, XX gizaldiaren erdi-inguruan sortu zan Israel Erreñua eta gaur be or diardu erreñu ori toki egokian finkatzen.

Baiña erria menperatuta izan arren, ez dau iñoz galdu bere nortasuna. Erria izateko ez da bearrezkoa buru-jabetza osoa.

Orain begiratu dagigun Euskalerrira.

Euskalerrria iñoz agintaritzta bakar bat euki ez dauan anfiktionia bat dogu. Egia da III Santxo'k bere esku euki ebala Euskalerrri osoa, baiña ez erri bat lez, askoz zabala goa zan bere erreñuaren zati lez baiño.

Euskaldunak, ez zatika eta ez batuta, iñoz ez gara izan erreñu edo erri bat, beti beste batzuren menpean bizi izan gara.

Nortzuk diran gure agintari nagusiak?

Esan dagiguzan izen batzuk: Erromatarrek zati bat, frankoak zati bat, bizigodoak zati bat, akitaniar beti erdi-euskaldunak beste zati bat, Asturias'eko erreñuan Bizkaia... eta aspaldion jabe oso arroak diran Frantze ta España.

Baiña egoera guzti orreitan, euskaldunak asi Lurrarte edo Mediterraneo itxasoan eta Asturias'era arte, asi landetan eta Zaragoza'ra arte, lurralde orreik euskaldun izan diranean, jakin dabe euskaldunak dirala eta maite izan dabe, anfiktionia lez, erria.

Lurraren zabalkera guzti ori gizaldirik gizaldira urritzen joan da. Guri jazo jakuna eta Ameriketara bizi diran inditarrak jazo jakena, antzekoa izan da. Inditarrak baztertu egin dabez eta euren "erreserbatara" sartu. Euskaldunak gaurko lurralde txiki onetara baztertu gaitue baiña guk jakin dogu burua jasoten. Era askotara izan gara menperatuak, alboratuak, zapalduak..., baiña menpean egon arren, erria gara eta "erri" edo "aberri" sentitzen gara.

"Gora Euzkadi askatuta" oiukatzen dogunean agertzen dogu gure gurari ori.

Egia da gure artean asko dirala kanpotik etorriak edo bertokoak izanik kanpotarren burubideak onartu dabezenak, baiña bere burua euskaldun sentitzen ez dauana, Euskalerrria erri lez onartzen ez dauana, ez dago euskaldunen taldean, gure artean diran kolonietarikoren baten dagoz.

Erria il nai dabenak, eta asko dira ori argi esan ez arren, enda-iltzailleak edo "jenezidak" dira: Euskalerrria menperatuta ba'dago be, erria da.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

# AGIRRE'TAR LOPE, ETOIA

## Perú nai du askatu, burujabe egin Bolibar'en antzera irabazle irten ba'zitzagun, zer?

Araotz! Nor da eskolatuen artean, Oñati'ko auzo menditsu onen euskal deitura trinkoa, XVI'gn. mendeko gizarkeitipo berezi ta garratz au, abentura izugarri bati (marañonesen epopeia) loturik datorrena entzun ez duanik?

Zoritxarrak jotako Agirre'ren nortasun irmoa, ospea, izakera sendoko altzairuzkadaz lortua, ongi merezia du gure aipamena.

Margarita'ko "El tirano" ondartzan.– Ba'dira urte batzuk Venezuela'ko Margarita Ugarte berotsu ta politeko (Agirre'en igaratz-oroiz) "El Tirano" izendatutako ondartzakaxkarrean, noizpaiteko une gogor aiek gogoraziz argazkiak ateratzen ari nintzala.

Nere buruari auxe niotsan: Amazonas'tik nekez etorri-rik emen lurrartu zendua Lope aberkidea. Ta bertatik Bar-kisimeto'ra gogorrean eraman zinduten, illa ta zatikatua izateko. Zure azkena gerta aurretik, erregezale ziran zure etseien koltxo izan etzedin, Elbira zure alaba ezpatatz erail zenduan. Zenbat oiñaze!

Ta onelako pentsakizunetan exeririk, Agirre'ren zorike-ta bizi ta jasandako nekebidea ausnartzen, arenganako eraspén errukitsua itsasi zitzaidan biotzean. Onek, ba, orain, pentsatu ta irakurritakoetatik, aren aipamen garatua egiñaz zerbait idaztera jartzen nau, gizon bakan eta arrigarraren argazki gogorra irudimenean itxuraturik.

Bizi izaneko lenengo izpiak.– "Euskalduna naiz, oñatiarra". Auxe utzi zigun idatzirik. Argi ta garbi. Euskalerria'n bizi zanezkerik ezer ez dakigu. Urrats txiki-erik ere ez. Perú da Agirre'ren gertakizun guztien erro, egoitz eta ardatz. Emendik, ametsezko El Dorado baten billa, zorike-ta odoltsu batek eramango du narrasean azkenerarte.

XVI'gn. gizaldiko Perú aberatsa.– Amaseigarren mende erditsuan Perú'n aurkitzen da Agirre. Potosí'ko zillar-meatz aberatsak zituan konkistatu berriko lurralde ontan, buruzagitzan gaztelar nagusi ziranen artean egundoko bekaizkeri ta alkar-leiak dabiltz. Pizkor mingaiñak, bata besteengandik gaizki mintzoz. Ta ori ezezik, baita buruz-buruko burruka, jazarpen eta sarraskirik odoltsu ta anker-tuenak ere.

Pizarro, Valdivia, Almagro, Orellana, Carvajal, izenda-tu berriko errege-ordezkoa, gobernadore, gotzai, e.a. zein geiagoko ari dira, nor indartsu ta ondasuntsuago. Euren artean ez da pake-girorik, gairiditze-irrika baizik. Eta ez begirunez eta gizonkiro, erarik zital eta kaxkarrenean baiño. Eta ez pentsaioen arteko ain ezaguna zaigun Pizarro bera aingerutxo bat danik. Agian, berauxe ankerrenetakoa. Alare, arrakastatsu, goraldua ikusten dugu gaur liburuetan eta miretsia monumentuetan.

Espedizioak El Dorado'ren billa.– Benalcazar'ekin artzen du indar El Dorado mitikoak (aberaskien mito zoroa, puztutako errialde ametsua). Edapen aundia lortu zigun. iñork ez daki nun diran altxor oiek. Guayana'n, Orinoko'ko ertzetan, Amazonas'eko oianetan... Eta urre-irrikaz espedizioak antolatzen dira. Orellana'k berea erutzen du. Urteen joanean beste batzuk dira eratzailleak: Quesada, Salinas, Poveda, Alvarado, Ursua... Danak Felipe II'garrenaren agindupean, eunka daramazkite soldadu ta zaldiak. Ameriketa'ko lur oiantsu, edatsu ta arrizkutsuetan barren-duz, askotxo izango dira gose-nekeak ildakoak. Baso eskerga aiek ez digute ondo gordetako kuxelu miragarri-rik azaldu nai.

Agirre, Alvarado'ren agintepéan Chuquina gudaldian ibillia, erren gelditu da betiko. Ez ordea asmoz eta erabakiz moteltzen, burnizko naiez jantzitako gizona bait-da. Gorputzez exkaxa izanarren, begien dizdretan darakus bere indarra, iraultzale ta matxin-indar asegabea.

Agirre'ren ustez, espedizio-gidariak trebetasunik batere gabeko aluak dira. Bera, soldadu-taldeetan ezereza dalarik, danen gaiñetik jauzi egiteko garaia zai dago.

Ursua'tar Pedro'ren espedizioa.– Perú'ko erregeordez-koak zaldiz, orniz eta gudariz ongi antolatutako espezioan dijoa Agirre. Ursua da eunkako gudar-multzoko kopurutsu onen buruzagia.

Espedizioak, bere jardueran, itukin asko sortzen ditu. Aopeka dabiltz marmarrak. Ta Ursua, baztandarra bera, il egiten dute bere txabolan.

Ursua illik, Fernando de Guzman dalako sevillar arrop-putz batek artu du buruzagitza, aginte osoa. Agirre'k zerikusi andia izan du Ursua'ren ilketarekin eta onen ondoren-go Guzman'en aginte-artzearekin. Zenbaiten artean Guzman'en alde idatzitako agirian, Agirre'k bere abizena uste gabeko geigarri batekin ipintzen du: Agirre'tar Lope, etoia (Lope de Agirre, traidor).

Felipe II'gna. zapuztua. Azarikiro jokutzen dakian oiñatiarrari eltzen ari zaio bere garai ona. Ez da soldadu giza-jo-maillan geratzekoa. Ez da bereala sunsituko sugar lillu-ragarri antzera sortutako au. Eskolatua agertzen da, ausarta, itzetorri aundiko, gaillen. Bere burua ezagunerazi du eta areagotuko errege-zaleen aurka.

Soldadu-taldeak beren buruzagiekin bildurik daudela, Agirre erabakiz eta itzontzi Guzman'en goratzaille azaltzen da (fede onez?) onen burua ametsez puztuz. "Guzman dugu Perú'ko printzea" aldarrikatzen du. Au gure errege! Danen txaloz, bertatik artzen du Guzman'ek begirunezko tratua, eta nola ez! oorezko egoitz-kaparra.

Esandakoa luzeraziz, zapuztu egiten digu Gaztella (España) “urruti bai dago”, uko egiñaz beren-beregi Felipe II'nari. eskutitez jakineraziko diona. Erabat etenik da, ba, erregearekin lokarri-zila.

Ameriketa'n askatasunaren lenengo irrintzia.– Ez du dagoaneko Agirre'k El Dorado'z sinisten. Independentzia du buruan. Au bere ardura bakarra. Perú (El Dorado amestu berri au alegia) burujabe egin nai du, askatu. Bildur diote danak. Begirune izugarria.

Espedizioa aurrera dioa. Agirre, Guzman'en agintzapean, esaneko maltzurra, Amazonas inperu berderako bearezkoak izango zaizkien orni ta tresnak antolatzen ditu eta ibaietan zear joateko ontziak egiñarazten ere. Ez a geldirik egotekoa. Espedizio-ezaugarritzat zoru beltzean gurutzatutako bi ezpata gorridun ikurtzapia asmatu du.

Agintzeko doaiez egiña dago. Lausengariak, erle burrundari antzeko, gero ta geiago ditu. Aurrean, berriz, begi-zearka edo-ta buruz-buru Guzman eta aialdekoak, zenbait bekaizti, min artuak eta aal-eziñak.

Agirre'k bere aginte indarra sentierazten du. Izu sortzaille, aldeko dauzkan “marañones” gudari-taldeak babesturik arro sentitzen da.

Lenengo amerikar estatu jareia sortu-naiak gogorkerietara darama.

Odol-errekak sortuz, garbitu bearezkoak garbituko ditu. Zoztor eta ostopo zaizkionak errukirik gabe sakailduko ditu. Eta nola gaiñera! Ontarako etzaio betarik paltako, itsasorañoiko ibilbidea (munduko oianik itxiena eta ez-ezagunena) erogarria ezezik oso luzea izango bait-da. Amazonas ibai misterioitsu eta ertzetako ianetan barrena ikaragarriak jasan bear bait dituzte danak: gaitzak, eltxo odeiak, nekeak, piztien eta indi-leiñu basatien erasoak, e.a.

“Marañones'en buruzagi” titulua.– Guzman'ek ez du politikari on danik azaltzen. Eltzen ari zaio bere azken ordua. Agirre'k bere asmoa betetzen du Guzman sakaildurik. Eta nagusi gelditu da, esaneko ta amoremaille zaizkion gudari zakarrez inguratua. Bere buruari lenengoa izango zaion izendapena ematen dio: “Marañones'en Buruzagi”. Geroxeago beste au, “Askatasunaren Printzea”. Urren...

Espedizioaren azkena.– Urtebetetsuko ibillaldirik gogorena egin dute.

(1559-1560) Ez da txantxetako, gero, egindakoa. Eta eldu dira noizpait Itsasora. au poza aiena! Aurrera jo eta Margarita deritzan ugartera irixten dira, alako batean emendik Perú'n lurrartu ta gaiñera erorita jaun da jabe agertzeko.

Margarita'n ala-olako gobernari izaten saiatzen da. Ez du lortuko. Zirika datozkio bere etsaiak, erregezaleak. Bizialdia mozten dijoakio.

Eta azkenik azkena, 1561'go. Urriaren 27'an.

Ondoren ixiltasuna.– Gaiztakeri-bidutzi gisa artua izan danak atzetik uzten du zer-esana. Agirre buru dalarik, espe-

dizio arek uste ez bezelako epopeiarik garratzena bete digu, sekulakoa. Ez da ordea aintzakotzat artua izango. Ez du oiartzunik izango.

Zutaz itzegitea, Lope, galerazi egin dute. Aalmen aizarotsu-illunak, zuk egindakoaren gaiñean ixiltasuneko arritzar eskerga ipiñi digute.

Traizioarik izan al zan?– Aldi ua oso gogorra zanik ez da ukatuko duanik, zerbaiten irabazian alegindu ziranean artean beintzat. Eta Agirre'tar Lope bere aldiko semea dugu. Jokoan sartu zan, arrixku aundiko joko zaillean eta kukuak oker jo ta dana galdu egin zigun, bizitza ezezik, baita urte luzetarako ospe ta izen ona ere, etoikeriari lotuta agertzen bait-da bere giza-irudia.

Traizioa, jakiña, zein aldetatik datorren ikusi bear. Batzuentzat traizioa dana, beste batentzat goragarria izan bait-diteke. Esate baterako, Rizal eta Martí, etoi zirala-ta, euren errietako españiar auzitegietan epaituak izan ziran eta eriotzara eramana. Gaur, gorralduak ikusten ditugu.

Aunditasun beltzeko umanta bezela edestiratu zaigu Agirre. Ero ala Ameriketa'ko askatasunaren aintzindari?

Garai illuntsu artarako, gogorra da, gero, Agirre'k egindakoa. Eta alakoxea da oiñatiarrak Felipe II'nari egin ziona. Garaialdi artako jaun aaltsuenari erronka egiteko kemena izan zuan.

Agirre, angotarren alde jarri zan, merezi etzutenen alde, erri aiek askatu ta burujabe egin nairik. Etzan, ordea, araille gertatu. Eta Ameriketa'ko erri aietan galtzalleai etzaie txarrik jotzen.

Erri beltz aien alde jarri zan. Ontan lenengoetakoa dugu. Baiñan lur jo zigun. Egin zituan zitalkeriak oso gogorrak izan ziran, ez dugu ukatuko. Baiñan, gaur bertan, oso goratuak diranen okerrak etziran Agirre'renak baiño exkaxagoak. Edestiak era ezberdiñak epaitzen ba'ditu ere. Gaiñera irabazleak izan oi dira edesti-orriak idazten dituztenak.

Agirre ta erregea aurrez-aurre.– Erregearekin neurtzen da. Agirre'k anker eta eskergabea deitzen dio. Irakurri ote zuan erregeak Agirre'k idatzi zion eskutitza?


Agirre baiño gutxiago egindakoak oso aipagarri izan oi dira maiz liburuetan. Joan dan gizaldirarte Agirre'ren aipamen-izpirik ez da iñun egiten, erregeari Agirre'ren izena-egiña atsegiñ etzitziolako, noski. Iñork ordurarte egin etzuana egin zualako, bere erregearen aurka idatziz (“ika” idatziz geiñera) jarkiz ausartu zitzaigulako. Erregeak erregetasunaren aurka azaltzen diranentzat oso gaiztoak dira, apenkorrak.

Agirre ta euskaldunok.– Aren oroigarri, euskal ezpale-tiko egintza-gizon bulartsu jokatu ta agertu zitzaigunari ez al diogu nun baiten, monolitoen bat bederen jasoko?

EGAÑA'tar GOTZON

## BIZKAITARREI BIZKAIERAZ

## ZELAIETAKOAK



### AFRIKA'KOAK

Greziarrak eta erromatarrak uste eben Afrika'n egodun gizakiak bizi zirala.

Egazti asko dagoz Afrika'n: Kurrilloak, pelikanoak, palmipedak, "jiburu" koloretsua, maillu-txoria, gartzak milloika...

### Basamortukoak

Basamortuan, oasi edo on-uneetan txoriak dagoz, ez asko. Jatekorik ez dauke eta arrapariak ugari.

### Artikokoak

Gau-erdiko eguzkia dagon leku aretan, neguan dana izotza dan tokian, ba-dagoz egaztiak.

### Egoameriketakoak

Españatarrak ara, urre-gosez joan ziran, baiña izadi ederra aurkitu eben.

Amazonas-aldeak txoririk ondoen apainduak daukaz.

Kondorra, esaterako, Andes mendietako erregea da, iru metro luze Inditarrak jainkotzat euken. Bere eizarako tranpak egiten dira.

### AUSTRALIAKOAK

Kanguruen lurraldea da au eta egaztiak be ugari daukaz.

Lira egaztia da bereiziena: Isatsa dauka lira-antzekoa eta beste amabiren beste abesten dau berak.

Martin-eiztaria be ugari dago an.

Ezaguna da txori barritsua, muzker kolorekoa.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

### LURRALDETA KO TXORI-MOTAK (II)

La Fontaine'k "Belea eta azaria" ipuiña idatzi euskun, belea iñozoa eta azaria zurra zirala esan-nairik. Baiña belea aundikia da: Apolo'ren lagun izan zan geroa igarten ekialako. Europa'ko Iparraldean gurtu egiten dabe, Odin jainkoaren txori lez.

Mikak ugaritzen dira udan, gari-ale billa eta kaltegarriak dira, baiña zomorro asko be jaten dabez. Euren taldeak ondo eratuta dagoz eta euren logelak aurrean zaintzailleak eukiten dabez. Arerioa datorrenean oi u bat botaten dau batek eta besteak iges egiten dabe.

Pika deritxo euren lagun bateri, au zuri-baltza da eta isats edo buztan luzea dauka.

Eperrak ibiltzen dira igitariak itzitako garauak jaten. Antxe egiten dabez abiak, iñoz ogei aurrautzagaz.

Faisana arrotza dogu, baiña gaur emen daukaguz bertokotuta. Grezia ta Erroma'tik ekarri eben Europa'ra.

### ITXASOKOAK

Itxasoa munduaren lautatik iru da eta bizidunez beterik dago, eta onein artean egazti asko.

Albatros: Au da aundiena, iru metro luze.

Pagalo: Baltza, itxas-txoriai arraiña kentzen dautse eta abiak oztu.

Kulixka: Artikotik etorten da neguan.

Frantze'ko Rodano-ondoan dago "klamarga" txiori-erria, toki ostetsua. Flamenkoa dabe buru.

España'ko egoaldean dago "Coto de Doña". Or egoan antxiña Tartesos kobre-leku ospetsua eta Argantonio erregea, orain 3000 urte dirala. XVII gizaldia ezkerro izena aldatu eban Medina Sidonia'ko Dukearen alabearena artzeko. Or dagoz gartzak, arrapariak, ankaluzeak, antzarrak et arranoak.

Ameriketako Florida'n dago onen antzeko leku bat.

ZUGATZ BAT SARTU DAUANARENA EZ DA  
ALPERREKO BIZITZEA

DANTE

# BA AL DIN(TZ) BADA > BALDIN BADA?

Irugarren pertsonetako iraganaldiko sujeto markak aztertzeo agindua emon genduan *baldin bada* esalditik asita. Orretarako, adibide batzuen konparaketak ipiniko dituguz jarraian:

<u>Baiezkoak</u>			<u>Baldintzazkoak</u>	
<i>ba-nintzan</i>		>	<i>ba-nintz</i>	
<i>ba-intzan</i>		>	<i>ba-intz</i>	
<i>ba.....zan</i>	(zati asko galdua, ortik ezin zan atara).....	>	<i>ba-litz</i>	(ANm. <i>balitza</i> )
<i>ba-giñan</i>	(Biz. <i>ba-gintzan</i> )	>	<i>ba-giña</i>	(Biz. <i>ba-gintzaz</i> )
				(Sal. <i>ba-gintza</i> )
				(Ron. <i>ba-gintz</i> )
<i>ba-ziñan</i>	(Biz. <i>ba-zintzan</i> )	>	<i>ba-ziña</i>	(Biz. <i>ba-zintzaz</i> )
				(Sal. <i>ba-zintza</i> )
				(Ron. <i>ba-zintz</i> )
<i>ba-ziran</i>		>	<i>ba-lira</i>	(Biz. <i>ba-litzaz</i> )

*ba-nintz-a-n* baiezkoari *-al-* 'poder' geiturik ta amaierako *-a-n* kenduta, *ba* (*al*) *nintz(-a-n)* > *ba-nintz* ataraten da. Bardin gertatzen da *ba-intz-a-n*-egaz. Begi bistan dago irugarren pertsonako *ba.....zan*-ek zeozer galdu dabena. Ortik ezin leiteke, ezelan be, baldintzazko *balitz* etorri. Nai ta ez, *ba...al...zi...z-an* antzeko zeozer izan bear eban aurretik. Bestalde, *ba* + (*al*)-*giña n -n* > *ba-giña*, baiña Biz. *ba* + (*al*)-*gintza n -n* > *ba-gintza-z*. Bardin *ba-ziña/ba-zintza-z*. *Ba* + (*al*)-*zira n -n* > *ba-al-zira* lenengo ta gero *ba-lira*. Amen ipintzen dogun *-al-* ori, asiera baten, baldintzazko iraganaldiko pertsona guztietan erabili zan, baiña beti bereziki jokatzan daben irugarren pertsonetan bakarrik ageri da fosildua beretik datorren *-l-* ta bestetan ez. Beste kasu baten be orrela gertatzen da: *nintzake*, *intzake*, *l-itzake*, Biz. *gintzatekez*, Biz. *zintzatekez*, Biz. *l-itzatekez*. Irugarren pertsonetan bakarrik *-al-*etik datorren *-l-* fosildua.

Bestalde, ikusi dagigun idazle batzuk zelan ulertzen eben *baldin* onen sorrera. Van Eys-ek esan eban *ba-al-egin*-etik datorrela. Schuchardt-ek, *ba-ahal-edin*-etik. Saroihandy-k, *ba-aldin-bada*. Lafon-ek eta Mitxelena-k, *ba-al-dadin*-etik. Gañera, azkanengo onek esan eban *ba-* ta *-ahal-*en ondoan aditz personal bat daroala, *dadin* edo *ledin*. Baldintzazko iraganaldiko adizki guztiak *ba-al-*egaz asi bear dabe ta baiezko adizkien amaierako *-n* kendu aurrerago ikusi dogun lez. Orduan, eziñezkoa da aitaturako *ba-al-egin*, *ba-al-edin*, *ba-al-dadin*, edo *ba-al-ledin*-etik *baldin* sortzea *-n* daroelako amaieran, *ba-al-egi*, *ba-al-edi*, *ba-al-dadi*, *ba-al-ledi* diralako jatorrak, *-n* barik. Gañera, *baldin*, indikatiboko aditzagaz lotzen da obetoen: *etorri baldin bada*, *baldin badator*, *ikusi baldin badau*, etab. indikatibokoak. Subjuntiboan separatu egiten dira: *baldin etor baledi*, *baldin ikus badeza* etab. Argi dago ba, indikatiboko iraganaldiko baldintzazko adizki batetik datorrela *baldin*, eta ez, aitaturako jakintsu onek diñoen lez, subjuntiboko *\*adin*-etik, naiz eta onen itxura euki, baina, orixe, itxura bakarrik.

*Ba-nintzan*-ek > *ba-nintz* eta *ba-gintzan*-ek > *ba-gintza* sortu zituzten lez, irugarren pertsonako *d-*gaz asten dan *ba-\*dintzan*, sorrerako teorikoak, egin bear eban > *ba-al-dintz*, singularra, eta *ba-al-dintza*, plurala, lenengoko aldaketak. Gero, singularreko *ba-al-dintz* > *baldintz* biurtu zan eta ortik > *baldin* alde batetik eta *balintz* > *balitz* bestetik. ¿Sinistekoa al da *bal(d)intz* adizkiak *-d-* ori galtzea *balitz* egiteko? Bai orixe. *Baldin bada* bera biurtzen da *balin bada*, *balima*, etab.

egiñez. Baita be *bidurra*, *bildotsa* > *bilurra*, *bilotsa* billakatzan dira.

*Balitz* eta *baldin*, gaur egun be, esangura antzeakoak dira. Hualde Martin-ek idatzi eban esaldi au: "*baldin ezagutzen bada, edo dudatzeko arrazoin onik BALITZ bada...*" ta konparatzeko ipiniko bagendu: "*baldin ezagutzen bada, edo dudatzeko arrazoin onik BALDIN bada...*", esaldi biak gauza berbera adierazten dabe. Orrek esan gura dau *baldin* eta *balitz* jatorri berekoak dirala. Argudio onek probatzen dabe *izan*-en iraganeko adizki zarrak onela zirala: *nintzan*, *intzan*, *dintzan*, *gintzan*, *zintzan*, *dintzan* eta irugarren marka pertsonetako *b-* jatorretik datorren asierako *d-* agertzen da. Badirudi, gero, *d-* ori *z-* billakatzan dala *dindilizka* = *zinzilizka* lez eta *-zan* adizkia *d-* ta *z-* sujetoarenak, biak galdurik, eldu da guregana. *Baldin bada* esakerak laguntzen deusku euskal aditz jokoaren gai korapilotsuetako bat askatzen.

Urte luzeetan irauten dau gurean Rudolf de Rijk holandarrak eta Robert L. Trask ingelesak plazaratu eben teoria oker batek, asierako *d-* ori indikatiborako denbora marka dala esanez ta ez izenordain personal baten marka, asierako *z-*, bardin, baiña iraganaldirako marka zala, *b-* denbora marka inperatiborako, *l-* edo *le-* baldintzazkoetarako. Gure jakintsuak, doktoreak eta baita Euskaltzaindiak berak be onartu dabe teoria ustel au bape aztertu eta eztabaidatu barik Mitxelenak probatu eban *d-* izkia ez dala euskerazko jatorrizkoa. Orrela izanik ba, ezin izan denpora marka zarra.


Ez da naikoa esatea, Trask-ek lez, *l-* edo *le-* baldintzazkoak dirala. Nondik datozen esan bear da. Len aitaturiko V. Eys, Schuchardt, Saroihandy, Lafon eta Mitxelenak esan eben *ahal*-etik datozela. Ados gagoz. Eta guk diñogu *bal-din*-en bigarren zatiko *-din*, *din-tzan* jatorrizkotik datorrela, *bera* ize-nordaiñeko asierako *b-* > *d-* billakatu. Aldaketa orrek probatzen laguntzeko, ona amen, Fr. Juan de Ajuria-ren sermoieta-ko esaldi batzuk A. Irigoyen-ek atarata: *zeld egin alezakeala*; *izan alitekean desdicharik andiena*; *izan alitekean erakeriarik andiena*; *egin aldizaketen pekatua*; *esan liteke geiago*; *ager litekean moduan*; *pensa litekean erakeriarik itxusiena*; *izan aliteke*. Esaldi oneetan garbi ikusten dira *aldi...*, *ali...*, *li...*, aldaketak, *ba-al-dintz* adizkiak egitem dituzan berberak, *ba-l-din* eta *ba-l-i-tz* egiteko. Argi dago *al-* eta irugarren pertsonako *-di-* alkartzen azdiranean orrelako ondorioak gertatzen dirala.

Iker Joseba Laka Guenaga

# MIKHAIL GORBATXOV ERRUSI'KO ERRIKETA-BEDEAI BURUZ MINTZO

## UDAZKENEKO GARRAZTEAK

“Gu danok oraindik egoera iragan-korrean gera, ta asko egin bearra dago, Errusi oraingo erri-agintezko aberri biurtzeko”, adierazi zuan Batzar Erkal gizartezale Batzaren (Soviatar Batzaren) lenen lendakari Mikhael Gorbaxov'ek “Argumenty i Fakty” izparringiaren izparkari-galdeketan. Errusi'ren etorkizunerako bideak zuzenketan benak edo serioak eskatzen ditu, baña ba dira aberrian orain dagoan egoera sendotu nai duten indarrak. Gizoste edo jende beartsuaren kopuruak orrelakorik eziñ-onartuzkoa dala adierazten du.



Gorbaxov'ek esan zuenez, egoeraren aldiñ-esate edo balorazioa ezker erdigunetik abiatuta, onoko auxen da: txindijaramanbide edo ekonomi garapenik gabe, aurrerunzko igikundeak erri-agintezko jarduera tajutzerik ezta izango. Leenik eta beiñ, orokorrean garatza edo negozioa garatzeko bide egin bearra dago, garatztikia garatzeko, benazkiago edo serioago onartzea ekoizketaren gaurkotzea ta ekoizleen iritzia. Aberriaren aurrerunzko igitaldiaren bidea txit zala da. Alaxe esan zuan: “Bereiziki aitatu nai nuke, emen derigorrez gure aberri-berezitasunak ikasi bear ditugula, biregituraketa edo “perestroika” aurretik erri-aginterik ezagutzen ezkendulako. Onen inguruan oso egiteko gaizto edo zalla degu, erri-agintearen leen-egiak (demokraziaren printzipioak) notintza edo gizostearen barrunbean (kontzientzian) sartu ditezen. Gizarte-erriagintezaleek (sozialdemokratek) bat dagite aberri, gizarte ta erriaren bearrekin. Alderdi Erri-Agintezalearen leentasuna, biztanledi geyengoaren zudu edo ganoak (interesak) zeñi ikuspegiak (puntos de vista) adieraztean eta gutxiengoaren zudua ere kontuan artzean datza”.

Gorbaxov'tar Mikhail'ek, Errusiar Erri-batzako alderdi Oroerkidezaleak (EEAO) alderdi aurrerakoi bezela aurkezteko joera dun arren, aberria atzeruntz arrastaka eraman besterik eztula egiten duste (uste du). Alderdi onen kideen arabera, joera zaarretan gelditurik zerbait egin dezateke, ta or da beren utsegiterik aundierna. Orrezaz gaiñ, azken aldian oroerkidezaleai berez naiko zaill eta korapillatsu diran alderdi-barreneko artu-emanak zaildu egin zaizkiote.

IUKOS'ekiko egoerari ezaldi edo krisisekoa eziñ esan lezayokela derizkio Mikhail Sergievitx'ek. Ain zuzen ere, azkenaldian Laterri Alkartuetan (USA) 20-30 inguru baltzu edo lantegi nola edo ala auzipetu (auzia jarri) zituzten, eta an iñor etzan ezaldiataz mintzo. Gorbaxov'ek aurkaz-aurk edo notinkiro (personalmente) dazagu Khodorkovskiy IUKOS baltzu-taldearen lantegi-burua, berekin izan zan. Gorbaxov'ek zerasanez, gizaki argi ta oartikasias da (experimentado) baña, onengaitik edo argaitik aundikiari Errusi'n lendakari izatea zail izango zayetela nabarmendu nai zun

### Euzkeraltzailea: Azaldegia Txiki'koak

Euzkeraltzallearen oarra: azken oar orrek, ba du bere zergaitia: naiz ta zenbait jakitunek khodorkovskiy ta beste batzuek espetxeratzeari oker iritzi, erri txeari neurri aundi batean zillegi iduritzen zayo, aberaski oyek beren lazera edo bear gorriaren obendun edo errudun lez baitikuskiten.

Asier Etxaburua



## DEDALO ETA IKARO (KRETA)

Kreta ugartean Minos, Europa'ren semea, zan errege.

Dedalo izena eukan argin trebe bat bizi zan ugarte aretan eta onek Laberinto izeneko etxe eder bat egin eban. Etxe onen barrura sartzen ziranak galdu egiten ziran eta ezelan ezin aurkitu izaten eben urtenbiderik.

Dedalo'k okerkeriren bat egin eban Minos'en aurrean eta errege onek berak egindako laberinto orretara sartu eban, Ikaro semeagaz batera.

Aita-semeak antxe egozan egunetan baituta, urtenbidea aurkitzeko itzaropena barik.

Baiña Dedalo asmatzaille ona zan eta gau ta egun ekin eban urteteko era bat billatzen.

Egun baten bere artean esan eban: Ez daukagu semeak eta biok emendik urten-eziñik gure gorputz aztunari ego sendo batzuk ipiñi ezker.

Esan eta egin. Asmatu ebazan ego-pare bi, gai ariñakaz eginda. eta goiz baten bere semeari ezarri eutsozan egoan argizaiagaz. Antzera ezarri eutsozan beste ego biak bere buruari be. Orrelan alde egin eben Laberinto aretatik.


Pozik joiazan aita-semeak geroago ta gorago.

Baiña konturatu zan Dedalo zurra eguzkia geroago ta beroago etorrela eta semeari, beragotik dei eginda, esan eutson: "Kontuz, seme, ez edi gora igon, jatsi aldi beerago, eguzkiaren indarrak argizaia urtu ez dagian".

Baiña alperrik izan zan Dedalo'ren oarra. Semea geroago ta gorago ta pozago joian. Eta alako baten askatu jakozan egoak gorputzetik.

Orduan konturatu zan semea bera be, baiña berandutxu: Aitaren parean egoala aizeak kendu eutsozan lumak eta itxaso urdiñera jausi zan, gizajoa.

Aitak aurrera jarraitu eban semea uretan galtzen ikusi-arren eta ederto eldu zan Dedalo argia Ziziliako zelai ederretara.



## AFRIKA: DAKAR

Dakar salerosketarako lekua da eta ara batzen dira Senegal, Mali eta Mauritania'ko biztanleak.


Mundu guztian saltzen dira ango kakaueak. Trebide ona dauka.

Europa, Brasil eta Arjentiña-artean dabilzan itxas-ontziak alkartzen dira uri onen kaian.

Ego-Atlantik lenengo igaro ebana Jean Mermoz frantzetarra izan zan eta uri onetatik itxas zabalaren beste aldera egazkiñezko korreoa be beronek sortu eban. Iru urte geroago galdu zan Dakar'eko uretan "Egoko kurutze" egazkiñean joiala. Dakar Senegal'en uriburua da eta ara batzen dira frantzetar izkuntzaz goi-ikasketak egin nai dabezenak.

Toki egokian dagoalako, luzaroan kai aundia eta egazkin-zelai ospetsua izan dira bertan, eundak urteetan bake ta lan iraunkorra izan daualako.

# ALEGIÑAK ETA ONDAMENDIAK



Cayley'k 1837'garren urtean burututako bi giagarri.

Aurreko idazlanean gogoratu doguz labur egaz ibilteko gizakiak zelako alegiñak egin dauzan, baiña beste asma-zaille asko geratzen jakuz aitatu barik eta asmakizun aundi onek merezi dau orreik be gogoratzea, bakoitxak zer asmau eban esaten dogula. Urrengo idaz-lana Wright anaiak aziko dogu.

Gizon ospetsuak dira emen gogoratuko doguzanak, eta eurai eskerrak lortu zan gaurko egazkiñen mundua, baiña zer lortu eben euren aldiak? Alde batetik jentearen irribarreak eta bestetik eralketa aundiak egin eta sarritan ondamentian edo eriotzan amaitu.

Ospetsua dogu England-errian Cayley(1783). Onek bes-teen asmakizunak gogoan ebazala, elizaren bear-izana ikusi eban, baita elizari eragiteko beste era bateko motor indartuagoa bear zala be. Asko ta ondo aztertu eban Cayley'k arazoa eta "egazkaritzaren aita" esaten dautsoe.

Henson (1842) dator urrengo: onek lurrunezko burdia deritxona asmatu eban. Dirurik ez eukan eta egazkin txikiago bat egin bear izan eban, baiña alperrik, ez eban egaz egin. Makiña bat irri-barre egin eutsoen.

Stringfellow(1870) izan eban jarraitzaille Lurrundun gurdia aurrera aterateko eta London'en agertu eban bere makiña ori eta 36 m. tan egaz eragin be bai, baiña ikusleak otz geratu ziran eta au be biozkatu egin zan eta lan ori itzi.

Wenthan'ek aurrekoen ekiñetik gauza asko ikasi ebazan.

Errialde askotako asmatzailleak ikusi ebezan orreir marrazkiak eta alegiñak eta aurrera jarraitu eben: Penaud'ek ( 1871) egin eban eredu txiki bat eta berrogei m. ko bidea egin eban 11 segundotan.

Lau urte geroago Moy inglesak elize bi eukazan abaniku antzeko tramankulu bat gertatu eban, lurrunezko motorragaz. Baiña ez eben egaz egiterik lortu, pizka bat lurretik goratza igotea baiño ez. Urrengo urtean asmau eben gasoliñazko motorra, egazkiñerako aukerakoa.

Australia'n, 1893n. urtean "cometa celular" eritxona asmatu eben. Eta Philips inglesak be bere asmakuntzak egin ebazan askotariko egoakaz.

Urrengo urtean Maxim asmatzaille iparamerikatarrak beste aidegaillu bat asmatu eban, oso aundia, lau tone pisukoa,180 zaldizko motorragaz, baiña lurretik jagi zanerako jausi egin zan.

Ader prantzetarrek (1897) egin ebazan eredu batzuk, Avion III be bai, baiña saltoka joan baiño ez eben egeiten. Bere lana ez eban onartu Frantze'ko gobernuak eta goibelduta itzi eban alegin ori.

Le Bris'ek alkatraz egaztia aztertu eban bere itxasontzian, egoak erabilli barik ibiltzen zala ikusi eban. Artu eban olako egazti bat aztertze. Bere eskuz egin eban alkatraz bat oialez eta zur ariñez.1857n. urtean jaurti eban egazkin eredu ori baiña lurrera jausi eta apurtu egin zan. Barrero jaurti nai izan eban, baiña barrero be jausi egin zan eta anka bat apurtu eutson asmatzailleari. Ainbeste barre egin eutsoen inguruko guztiak.

1891n. urtean Lilienthal injiñerua asi zan lan onetan, txoriakandik ikasita.. Liburu bat be idatzi eban "Egaztien egaera, egazkiñen eskola" eritxona.Lona, kañabera eta bambuz egin eban lenengo eredu , dana alanbrez lotuta, eta lortu eban 100 bat m. aidean egitea. Gero beste eredu asko egin ebazan eta 250 m. ko egaldiak lortu ebazan.1896n. urtean eredu barri bat asmau eban eta ibillian ipinten ebilla-la gaiñera jausi eta bizia galdu eban asmatzailleak. Il baiño lenago auxe esan eban berak;"Opariak bearrezkoak dira". Bere bizitzan bi milla egaz-aldi baiño geiago egin ebazan.

Pilcher izan zan bere jarraitzaille sutua eta onek be lau eredu egin ebazan eta egazaldi asko. Motor barri bat asmau eban baiña saio bat egiten ebilla-la, alanbre bat apurtu eta gaiñera jausi jakon tramankulua eta egun batzutara il zan.

Chanute be Pilcher'en kidekoa zan ,Lilienthal'en jarraitzaillea.1896n urtean asmau eban lenengo eredu. 700 egaz-aldi egin ebazan eta laster entzungo dirala goietan egazkiñen zaratak esaten eban baiña ori lortu baiño lenago il zan.

Langley dogu azkenengo gogoratzen dogun asmatzaillea. Ikasten zalea zan eta Ikastetxe Nagusiko irakasle izatera be eldu zan. Sartu zan gero egazkiñen mundura, baiña zori txarrekoa izan zan.

Asieran dana ederto. Saioak egiten asi zan eta sarritan egiten ebazan. 1896n. urtean budiñezko makiñaz eragiten jakon eredu bat lortuta km. bat bide egin eban, abiadea orduko 70 km. zala. 1898n. urtean Kuba'ko guda zala 50 000 dolar eskiñi eutsoezan gudarako egazkin bat egiteko. Eta egin eban eta Aeródromo ezarri eutson izena. Bota eban aidera eta egin eban egaz. Motor ariñago bat nai eban eta lortu be egin eban eta 1903n. urtean egin ziran probaketak gobernuo jentearen aurrean, baiña egazkiña uretara jausi zan. Albistea zabaldu zan eta jentear irri-barre ugariak egin ebazan. Barrero probatu eban eta barrero uretara jausi.. Berak esan eban errua jaurtiteko lanabesarena zala, baiña ez eutsoen sinistu

Andik 9 egunera Wright anaiak motordun egazkiñez lenengo aldiz egaz egin eben. Langley biozkatuta il zan.

# MARGO-ERTIA: ZUBIAURRE'TARRAK

Euskalerrriak be emon dau margolaririk; Zubiaurre'tar bi anaiak aitatu daiguzan:

Balendin (1879-1965) eta Erramun (1882-1963). Euren aita Zubiaurre'tar Balendin zan, eresgille ta Madril'go Errege-Txauno edo Kaperako maixu izan zana. Seme biak jaiotzatiko gor-mutu ziran. Garai'koak ziran. 1883'gn. urtean ama-semeak Madril'a aldatu ziran. 1894'an anai biok Madril'go Done Pernendo'ko Eskolean sartu ziran, orduko euskal margolari geientsuenak egin eroien ibilbidea. Bertako irakasleen artean Muñoz Degrain egokitu jaken, Erbeere ta Belge'n barrena ibilli ziran.

Erramun'ek ainbat laterritan erakusketak egin eta sari eurrez irabazi ebazan; Españi'ko Ederriztiko Lenen Zildaia (medallea) eskuratu eban.

Ikusten dogun lez anai biak lanean eta bizieran bat egi-ten eben. Balendiñ'ek 1937'gn. urtean Paris, Amsterdam,

Den Haag (La Haya) eta Bruxelles'en Euzko Jaurlaritzak patrozinatutako erakusketa batzuetan bere lanak imiñi ebazan. 1945'gn. urtean Done Pernando'ko Edertidi-Errege-Ederretzeko kide egin eben, eta 12 urte berandua-go Edertidiko laterri-erakusketako epai-maikoak deduzko zildaia emon eutsoen.

Biak ezagutu eben basarri-giroa. Erramun irrizalea-go, bikorrigo zan, gaurkozalegoa, argi-ñabardurak erabiltzearen zalego. Bizkai'ko zokoak ta irudiak margotu ebazan; irudi orrean artean, Unamuno'rena aitatu daikegu. Ego Amerika, Breñaña, Erbeere, Baztela ta Galizi'ko gaiak be erabili ebazan. Bearbada Balendin margolari ohea zan iritzia zabalduagoa dago. Euskal arpegi- unki-garritasuna margozten dau.

Asier Etxaburua

## AFRIKA

### Afrika Barria, Aljeria

Aljer itxas-erria da: Etxe zuriak Lurrarte itxasorantza doazela. Baiña alde barriak uri aundien antza dauka: Bulebar zabalak kai-inguruan, txalet aberats zuriak ondartza-ondoan, kafetegiak, etxeak, baratzak... dana da alaitasun frantzetarra. Berebil asko kaleetan, bizikletak eta busak be bai, eta lantegietara ta dendetara doan oiñez-ko asko.

Kaietan mundu guztiko itxas-ontziak eta grua edo gabiak ugari.

Baiña itxas-gaiñean, mailletan, dago beste Aljeria bat, "Milla ta bat gau" areitakoa, Kabash bertako auzoa, antiñako moruen uria dala. Kale estuak, mendian gora bereber-etxeak, etxe zarrak bata besteari eusten. Berebillentzat estuegiak dira kale oneik eta iñoz aso-gurdientzat be bai. An Arabiarrak, bereberak eta moruak barriketan denda-artean. Or 100.000 biztanle bizi dira pillatuta.

Antxiña turkitarrak ziran emen agintari, 300 urtean, eta erria itxas-lapurren erri biurtu eben. Or il eben martiri Mungia'ko Matxin.

Azkenengo gudaldian urtebete baiño geiagoan Aljer Frantzia'ren uriburu izan zan.

### Sahara

Saharatarrak egoera larrian dagoz. Franco ilten egoala, España'k itzi bear izan eban or eukan aginpidea, Ibillaldi orlegia zemaitsu etorrelako. Eta arrezkero ez dabe izan jabetasunik eta basamortuan txaboletan bizi dira.

Onu'k beti esaten dau or auteskunda egin bear dala, baiña ez da gauza erreza, Marrakitx'ek bere aginpidea itzi nai ez daualako. Gaiñera izenen zerrenda egiten be aspal-dion dabiltz amaitu barik.

Eri oneri be beste erri batzuren antzera, buru-jabetza osoa emon bear jako.

### Liberia

1799n. urtean sortu zan, Ameriketa'n katigu izandako baltzak artzeko. Orregaitk emon eutsoen Liberia edo Askatasun-Erria izena.

Bertan lendik bizi ziranakaz burruka gogorra izan eben eta 1847n. urtean egin eben bakea.

Ingelesa artu eben izkuntza lez.

Arrezkero lenengo eun urteetan aurrerapen gitxi izan zan.

Lenengo guda orokorra amaitu eta Laterri Batuen erakundea sortu zanean asi zan Liberia'ren aurrerapena: Kaut-xoa dauke ugari, frutak eta gari-antzekoak be artzen dabez.

Itxas-ondoan burdiña be ba-dago, batez be magnetita-gaz aberastasun aundia lortzen dabe.

Lur-barrua geiena oraindiño landu barik dago eta bideak be ez dira onak. Or leiño guztiak antiñako eran bizi dira.

Baiña Liberia bere bidean aurrera doa.

### Ghana

XV gizaldian frantzetarrek eta portugaldarrak ondartzetara eldu ziranean, arrituta geratu ziran areak urre-mar-goia eukalako. Urre-kozkorrak aurkitu be egin ebazan.

Gazteluak egin eta urrearen eta marfillaren billa asi ziran eta lurraldeari "Urrearen Itxasondo" ipiñi eutsoen izena. Baiña baltzak arrapatzen asi ziran, oneik katigu saldu eta diru gaiago aterateko.

Lurralde onen jabetza dala-ta, europatarrak alkarren arteko burruka aundiak egin ebazan.

Breñaña Aundia geratu zan, azkenean, lurraldearen jabe, baiña bertakoak aurka jokatu eben beti.

Inglesen aldi onetan urre ta diamante asko aurkitu zan, basoetako zura atera zan, kakaoa atera zan ugari.

OLAZAR'tar Martin'ek

## MATXIN GARRATZ

Gure Matxin beren oarkan aratin daukagu. Zahar dago, zimel, indargetuta, azurretako gaitzez jota, erdi kikil eta txakilduta berena dauen etxe sorri zulo barruan, begi ezkel lauzoekin ikusmen galduagaz lo gelako edoira dala erdi amesetan, uleak sapaztuta, beren tsagin eta ortzeren, aintxina galduak berriz, ui utzak agirian dituela. Artekoso dago, noiz etorko iakon kodainedun zaldizkoa: Erio, beren are erlojuagaz esku baten, inor be ez gaituena itxiko azitarako geratzen mundu ontan, berbera.

Gaiztoa izan dala beren denporan, esan daroe ori, baina berak ez dauko beren burua orretaz. Egia da bai, gizonezkoekin ez dauela ganora andirik izan adiskideak egiteko, eta artu-emonak gitxiago euki be eurokin, laian, gariak jotzen auzo lanean, txarri boda baten batean, edo ume aroko lagun zaarren baten illetan eta beren olatan... eta olakoetan ez bazan.

Bazekian bai, ta damu aundiz ganera be zelakoak esaten zituen beren lepoz atzetik: txordoa zala..., txoriburu ta txotxolo bat ere..., eztule bera baino zaarragoa baita eta auzokoetako aitamek momorrotzat eukela bera, euren ume mokoari bildurrez ikaratzeko lo egin guraz edo euren oge barruek gauez buztitzetan txixari eutzi ezinda, berenera eroango dituezela lo egitera eta, aprapozian ezaniez.

Bakartia ta ligorra beren izakeratan izan dala, ezin dau ori ukatu, bai! Inos inosien munarriagaitik eztabadaikoak direzela eta, beren etxaguntzatik zear iturrira bidea doanagaitik edo..., auzokoekin aletoan goiek joteko beste berbak eta apaizketak izan dituela, bai! Edota erri mutil gaztetxuari, suminduta egoala, agirika gogorrek egin be txori kabietan ibilte zirenetan, ori bai ta bai!!

Inpernuko Txitxirriaren antza emoten ebalu olakoetan, gero?! Leike! baina bera egundo inori benetako kalterik egiteko gauza ez dala izan, ori ere egi egiazkoa dala esan bearrezkoa da, ez ba!

Taberna zuloetako laguna ez da izan, bai, saragi barrukoari aitzaki gitxi atara egin arren.

Andrazkoagaitik zer esan ba? Biurria zalakotan da ez zan egon ango ingurumarietan gonadun bat ere adore izan dauenik beragaz lotzeko, eta esaten ebezan guztiak entzunda ganera...

Denporatxue da, konturatu zala, beren etxetik mundu zabalera, inoiz urten ez da orri bat baino ez ebalu irakurri biziaren liburutik, baina naiko pozik egoan orraitio, gitxi ta ona, askoz ta nekezkoa baino mille biderrez obeagoa izango zalakoan. An bizi izan da bera ederto baten jaiotze geiago beren egazti ta patarien artian Jainkoagaz baketan, jai egunetan elizaratuz, eta biotz berez errezu batzuk Berari beleunbikotan dala egin izaten deutzazela, beren sorragaitik erregutuez.

Eta onelako gogorazinoekin diarduela, ara or ba ikusi geinkela etxeko txakur zintzoagaz beren oinazpietan biribilean etxunda berotasun apurren bat emon dakion, aintxinako gazteluetako andikien legetxe, eta beren soineko loi maiztukaz aspalditik garbiarekin aldatu barik. Besapean, etxeko katu xaloe Mizintxu ezku zantzuak otzitu ez deiozan. Buru ganian beren betiko txapel zaarra zitzak jandakoa, eta orbelekin egindako burkoa kaxkopean daukoela.

Aska-aurretik entzun daikez artzain bagako beren ardien negarrak, arin osatzeko esan gurenez, eta ainbat lasterren lantzarrera eurokin etor daiten deiez, gero alkarrekin ibilteko, ordurarte beti oi egin daben legez Gorroto inor berak? Ba eiztariak, egia esanda! Arek bai zirela berentzat bene-benetako biotz bako batzuk. urrunetik ikusita ere azelako amurrue ta ernegua emoten deutesen berari, emon bere! Begi zorrotzakin beti eurok, egaztiak nun edo an noiz ikusiko adi, tirokatutzekotaz erruki barik, ona baino ez dakarren areri, kopeta ilun dagoenari alaitu eraginez, euren parebako soinuekin. Eta zelako kaltiak egin be ortu arloak zapaldukoetan... erromara-esiak ertz idikian itxiz, orma ganetako arriak lokan baita, eta ori gitxi bada, euren zisparen estandarekin etxeko patari apalak uxakatu eragin bildurrez artaldetik eta, gero basoan zear sakabanatuak barriro bildu bear eta; Karkasko barriek egin eta arbolatik sagarrak ostu, eta izten dituezela baztar guztiak aker baltz batek eleiz barruak itxiko ebazan legez, eurenak egin eta gero! Eta ganera, arrapatutako txori giza-joak, euren garritik dindilizka moltzo baten eroanda, arropuzetan edonori erakusi-naian egindako astakeria inolako damurik azaldu barik. Ai! berak euki baleu oraindik beren aita zanak gatzezko tiroak egiteko zisperoa izaten ebana!! Amaikaxutan olakoeri, imingo leuskioe berak gogoz, daukiezan eperdi txuntxurrek gori goritan eta Bittor doneko dantzaka ekinalean, bai orixe! Debekabaganduak!! Borrero alakoak!! Inor maite izan badau berak, inoiz? Ezpai barik txoriak!! Arek ziran bai beren poz guztia. Mota guztietakoak ezagutze ebazan, euren soinuegaitik, lume jantziagaitik, aidetan egazkeragaitik..., zelakoak eta zein lekuetan egite dabazan euren abiak, noiz alde guretik ala etorteko diren...

Bera ere maite ebela igerrian egoan, ikustia baino ez dago bestela Santa Kurtzietan agertzen diren elaiak, leia bizian zeinek arinen lekue artun naian abiak egiteko beren etarteko agetan kume barriak ateratzeko diarduenetan, norberen buru soinezko txapelaren txurtena joteko beste bee-egazketarekin.

Eta orrenbeste arteko egoan be, zolitu iakoz bat batetan begiak, barrabastxuen irriparra muturretan agiri dauela, beren txori bikain eta kutune dana, leiotik barrura sartun dalako bera agurtzeko...

Nor dogu berau ba? Ba, Zozotxu berbera da!!, eta ega zapladatxu baten ezertzen iako sorburuan txorrotxioka, ta agure gaixoa samurtu dalata poz adurretan asten da. Gomutara datorkio denpora asko ez dan egune, beren kutuntxua ezagutu ebanean: Zozama, suge gorri baten ezten ilgarrietan zorigaitzez jausi zala-ta, beren kumeak zurtz, otz eta gosez aurkitzen zireala, da ia ia basa piztie-kaitik iruntsi izateko zorian. Zozotxu bera soil soilik aurrerako geratu zan bizirik, eta etxeurreko sastegitik batunda, euli, erle, kurubio, zeden, kotxo, aramu, arrak ta abar jatera emote eutsozan agora banan banaka Jainkoaren eroapenagaz. A zan iruntzi bearra lagunok! A zan jangu-rea! Burdikadak bear izan ziren aren biroa betetzeko! Emon eta emon jaten, eta barriari itxaroten beti! Eta pozik aurrera atara ebanien gizendu zan arte!

San Pedroak izango ziren kontuxu, inetazi ta oinezta erdian, Zozotxu beren jantzi lume barriz arro arro apainduta alde ebalat beren abietik mundua ezagutzera, eta berenetik bizi al izateko. Arrezkeroz, Matxin bera ez zan bizi izan baketan, beti arduetan eiztariaren bildur, ilko ebela-koan... ez eukan babeste akordurik, ezta ezta... Baina ez! Azkenean ba, eta beste barik, agertu zan etxera, dotore dotorez eta potolo potolote bereu, eme lagun eta guzti, ta irurak aditu zirean eurek jakin dakien izketa berezian, txio txioka eta txortxorka, jaietako zuririak baino ez zirela bear izan ango etxaguntzan egunerik berea emoteko, eta eukien poza dan danari lau aizetara zabaltzeko.

Eta olan lotu zirean alkarregaz: udabarriz oianeko deia-gaz alde eta neguterako udagoianean etxeratzeke.

Oraingo aldian ure Matxin ez da ezertarako gauza, ez ta berentzako jatekoagaz apaintzeko be. Il bear dau jan ezda. Baina ori ez!! Inola ere ez!! An dauko ba Zozotxu bera ardurek artzeko, beragaitik inos egindakoak ordaintzeko gurarren dala, atan bere. Bera izango dau maaturia! Eta alan ba, bera da jatekoz orniduten deuana, beren mokotxu garbiagaz, aurrenetik itur buruko ur gardenetan ondo ta ondo buzti eta gero, ogi mukur bat orain..., Elias'eri erroi batek, basamortuan zala ezer janik ez da, lagundu eutson modu-modura.

Ixil uneda baten dagozela, arnas sakon bat entzuten da eta... Ene Jainkoa!! Berenak egin dau Itxi dozak betirako begiak! Zozotxu konturatzen danean, zotinka egaz teilatura doa, urria deritzena alboratzen, Matxinen arimiak Zerurako bidia artu daian, beren aintzinekoekin bat egitera. Ondoren, albiste txaar ori basoetan zabaltzeko, Enara bialtzen dau. Il-ezkil jotzaile, Okileri, iletako otsak ateratzen urren baselzatik; eta Zozotxu bera, mendirik ez dagoen lurraldetara abiatzen da, beren endakoen gana. Urretxindorra, Kardanzilo, Txorru eta abar..., txanda txandaka errezinulaka, bertsolarienak egiten etorri iakoz, eta or bertan goitiko larreraren ariztitxu baten, Kulue dan-danen orduek jaboten daukago.

Egune ilundu dala eta, Mozoloa, Ontza, Sagu zaar eta Gau-txori daukoz gaubelarako lagunak. Kanpoan berriz, ugelazioek eta laminekoak abozbatzan dabizan kantuz-

kantuak ez besterik entzuten da. Igetargia be, ilbarritan dagoala biribil osoan baltz utzez dago, eta epertargiaren dizdizea baino ezin leikela ikusi gau ilunbetzu onetan.

Biaramonean gagozela, txori mota askotako ordezkariak piloan batuta eta arbola adarretan esarrita ikusi daitezke, azken-agurra emoteko zain eurentzako aitabitxi bat lakoxe izan daben gizonari, damu aundiz eta egun bategaitik beintzat anaitasuna erakutziz adiskidetuta alkarrekin.

Ez daukie prailatzko meztidura beren ilotza jasteko baina..., zorionez beren gazte denporako aurreaskularien arropia aurkitzen dabe ondo baten eta beren arraiera tolestute, itsu balda baten gordeta eta beragaz soinekotuta baita urregorrizko arrakada bategaz belarripe batetik lurperatzaientzat berari lur ematekoa ordaintzeko ta abadeari elizkisunagaitik baita ere, euron bientzat erdi bana. Txapela esku-artean, bernazakietan txintxarridunakaz, abarketa zuriz eta alkatinerako gorrizkak, garrikoa bardin, il lorra abian ipinten dabe, errime aundiz danak, pikeko leterine bailizan atzetik daroazela berarekin.

Arrano baltza da, danen aurrei doana, Gabiloia ta Mirua orekan beren alboetan lagunduten. Atzerago, Oskilazoa, Mikea, Belea, Belatsika, Erroi baltza, Saiarre eta Baso oilarra erostarienak kra kra kra egiten. Gero Eleiz txori eta eundezetako Araba zozo mordo andia aidean artunda, andariek baziren legez. atzetik, Uso zuria ereino lore poto bategaz mokoan. Andaburu, zelan ez Zozotxu inoskoren baltz dolu, negarrari eutzi ezinik Birigarroak lagunduta. Ondoren, Txirta, Txioi, Txonta, Txepetxa, Amilotz, Kurloi, Mingor, Papargorri, Zozo zuri... moltzo eder baten eresika tamal aundiz. Urren, Kai txori, Potorro, Alkoi ta Matxin arrantzaile, kresalez atzitura, itsas bastarreko soinu zaar negartiak txistuka. Eta azkenez, erbestetik etorrikoak, Oilagor, Kurlista, Zikoin, Aate, Egabera, Txurru txurru, Antzar, Eperra, Pospolin, Txinbo, Buzten ikara..., ekaitz-sundarekin, notornoak kantuzka.

Errikoak, olako au ikusterakoan, eta txori maluek legetxe luzaro egonda gero, asten dire danak aitarenka eta aieneka, lau ikaratan eta ezpanak okertuta dardaizean, txoriak jabetu ete direan danagaz, eta mundua zoratu dalakotan eta ezer txarrik etor leikioen ondorengoetan, Matxin zenduari erru guztiak botaz, sorgin bat baino ez zalako izan beti eta, marmarketan alkarrerri sapokeri osoz.

Amaitzeko, eta mingoztazun apurren bat kentzeko, esango deutzuet lagunok, zelan ba Zozotxu bera egunaro ioaten eakoela lurperatuta dagoan ortu santura, ilondo aldia gordeularik, egunek dakarren lore pitxienagaz artunda, txorrotxopioka kontu kontari, egurrezko kurutz buru idatzita daukanari:

R.I.P.

Jainkoak entzunda orraitio!!

**ALBERTO NARBAIZA**

# BERTSO ZARRAK, 1930KOAK. AITA SAN JOSE'REN DOLORE TA GOZOAK

1  
Dibersio polit bat  
buruan det pasa,  
iduritzen zait dala  
txit ondo dan gauza.  
Bertso bi paratzeko  
egin det amesa,  
San Jose'ren bizitza  
kanta albaneza.

2  
Gure Aita San Jose  
zerura baiño len,  
arotz pobre zintzo bat,  
bizitu zan emen.  
Debozio aundikoa  
Aita Eternuaren,  
Birjiñaren Esposo  
eskojitu zuen.

3  
Birjiñak artu zuan  
San Jose Esposo,  
fameli aren karga  
alba zezan jaso.  
Bizitza artarako  
zazpi doloreta gozo,  
munduari nainai diozkat  
kantuz adierazo.

4  
Au zan lendabiziko  
penen asitzea,  
aurdun sentitu zuan  
bere emaztea,  
gogua eman zion  
bakarrik uztea.  
Orduko San Joseren  
dolore tristea.

5  
Aingeruak zerutik  
zion bereala,  
motibo orrengatik  
laga etzezala.  
Espiritu Santuaren  
milagrozkko obra zala  
Jaungoikoaren semea  
jaio bearra zala.

6  
Bigarren dolorea  
Jesus'en jaiotzan,  
ikusirik Aurtzoa  
alako pobrezan.  
Berak naiko etzuan  
kunplitua izan,  
guretzat desonrrarik  
ipiñi etzezan.

7  
Desanparo onetan  
zegoan pentzatzen,  
aingeruak Aurrari  
gloria kantatzen.  
Artzaiak beste aldetik  
Jesus adoratzen,  
auek ikusita zan  
Jose konsolatzen.

8  
Iruarren dolorea  
urrengo egunean,  
Jesus jaio zanetik  
zortzigarrenean.  
Oñazaz Aur gaixua  
negar samiñean.  
Ura pena San Josek  
ezin egiñean.

9  
Aur gaixua negarrez  
odola zeriola,  
ezin ixildu zuen  
inundik iñola.  
Aingeruak zerutik  
esaten ziola.  
Jesus bere izena  
eman zeriola.

10  
Gustora eman zion  
Jesus'en izena,  
egiteagatikan  
Jaun orren esana,  
gure pobetxurako  
bazekian zana,  
orduko San Jose'ren  
atsegintasuna.

11  
Laugarren dolorea  
penaren garratza,  
aditu zuanean  
simeon'en otsa.  
Jesus Onaren penak  
ta Amaren biotza  
erdibatzeke zala,  
ezpata zorrotza.

12  
Simeonek ekarri zion  
zeruko berria,  
Jesus'en pasakizun  
ikaragarria,  
gure salbaziorako  
zala etorria.  
San Josek artu zuan  
atsegin aundia.

13  
Enemigo bildurrez  
gau ta egun zebiltzan,  
kasikan iñun ere  
fiatu ezin zan,  
deskuidon batean,  
arrapatu etzezan.  
Ama semearekin  
Ejitora juan zan.

14  
Ango idolo edo  
Jaungoiko faltsoak  
lurrera bota zitun  
Aur egiazkoak.  
Orduko San Jose'ren  
atsegin gustoak,  
aztu zitzaiken lengo  
penazko pausoak.

15  
Ejitorik bueltatu  
ziran Israel'era,  
notizi artu zuen  
andik bereala.  
Erodes'en semea  
errege zutela,  
ura pena San Josek  
galduak zeudela.

16  
Aingeruak zerutik  
oiek giazeko,  
bereala esan zion  
ez ikaratzeko.  
Etzegoala bildurrik  
artean galtzeko,  
Galilea aldera  
erretiratzeko

17  
Juan ziran Tenplotikan  
Jauna adoratuta.  
Amabi urteko Jesus  
bidean galduta,  
billa ibilli ziran  
berriz jiratuta,  
urapena San Josek  
ezin billatuta.

18  
Iruarren egunean  
zuten billatua.  
Doktore erdi alden  
zeruko Maixua,  
lurrekoari ematen  
beren konsejua,  
ikusi zuanean  
ai zer deskontsua.

19  
Orra zazpi dolore  
amabi urtean,  
nunbait beti guztora  
ezin zegokean.  
Orain gure zai dago  
zeruko atean,  
ia billatzen degun  
saiatu gaitean.

20  
Dolore oien onrran  
zazpi pater noster,  
egunero esatea  
ez da bada ezer,  
irabazteko asko  
grazia ta esker,  
kuidado esan gabe  
ez gabiltzan oker.

21  
Debozio onetan  
segitzen duana,  
konfiantza osuan  
dijua argana.  
Guztora pagatzen du  
eske dijuana,  
bera da bitarteko  
iñun dan onena.

22  
Para dezagun bada  
bera bitarteko,  
baldin bere Esposak  
ez du ukatuko,  
enpeño obezikan  
ez da topatuko,  
ama baiño oberik  
ez semientzako.

23  
Alperrik da ibiltzea  
mingaiña laisterka,  
biotzetik ez bada  
proetxurik ez dauka,  
debozio onarekin  
barrendik asean,  
biotzaren saltoak  
gustatutzen zaizka.

24  
Zutzaz akordatzen naiz  
Ordu batzuetan,  
beartzen naizelako  
nere pulstuetan.  
Mundu au lagatzeko  
ordu estu artan,  
eriotza nai nuke  
zure eskuetan.

25  
San Jose amoroso  
ai nere larría,  
zuk lagatzen banazu  
nago eroria,  
zurekin bat nai nuke  
Jesus ta Maria,  
arren itzazu nitzaz  
miserikordia.

26  
Gutziz bide labaiñak  
senti ditut emen,  
ar zazute kargua  
nere animaren,  
adiskide izan gaitean  
zeruan alkarren.  
Ala gerta dedilla  
biba Jesus Amen.

**Sor Justina-Luisa  
Aldalur  
(Gasteiz:  
S. Antonio kalea)  
(KLARATARRA)**



# TIBET

Munduan dan lurralderik bereizienetariko bat dogu-Txina´ren albo baten dagoan Tibet lurraldea.

Goiko leun-une edo meseta bat da, 4 500 m. itx-soa baiño gorago.

Lurralde otza da, lekaroa, baiña zoragarria, mendi-arte baten. Egoaldean Imalaia eta emen Eberest mendirik aundiena, 9 000 m´koa.

Berez askatasuna zor jakon aberri bat izan arren, txinatarren menpean dago eta egoera oso larrian.Tibet´en gogor jokatzen dabe komunistak!

Lhasa da uriburua eta lenago Dalai-Lama zan agintaria, baiña gaur erbesteratuta dago.

649n. urtean sortu eben idazkerea.

Lenengo erregea “Zuzen.Indartsu-Sakon” izan zan eta buda-bidea sartu eban Tibet´era.

1239n. urteanlamaismoaberri orretako erlejiño biurtu zan.

Dalai Lama´k beti izan dira izterbegizikusiak alboetako agintarien aldetik eta makurtzen izan ez ziranak, kendu egiten ebezan.


Tibet´tarrak txikiak eta indartsuak dira, narrua kobre-kolorekoa dabe, begiak gaztaiña-kolorekoak eta ule baltza.

Zoriontsu bizi dira, naizta garbitasuna urria izan euren artean. Guztiz erlejiño-zaleak dira.

5 000 monastegi daukez eta eleizbirak eta jaiak ugari egiten dira euren artean.

Janariak garagarra, aragia,gaz-taia,tea egunean lau katillukada.

Yak idia bearrezkoa dabe. Orre-xek emoten dautse aragia jateko, uleak jantziak egiteko, narrua batelgintzarako, zaldi-bastak,txabolak



Yeti edo “Elurretako gizon iguingarria”: margolari baten asmakizunak.

ortik ateraten dabez eta adarrak onak jakez turutak egiteko.

Iru milloi lagun dira guztiz eta 1/5 abadeak dira.

Monjeak eleizkizunak ondo gertatzen dabez, eta gobernuaren langilleak izaten dira, sendagilleak be bai, luma ederdun idazleak, margolariak, soiñulariak, eskaleak...

Monje batzuk bakarti biurtzen dira, euren gorputza menperatzeko.

Leiñargiak edo nobleak gudetan garaille urten dabenak, edo Dalai Lama bat azi dabenak edo erregeagandik jatorria daukenak edo orretarako agiria erosi dabenak izaten dira.

Aundikien etxeak arri landuzkoak izaten dira, terrazadunak, eta iñoz bost bizileku be eukiten dabez.

Ipar-aldean artzain ibiltariak dagoz. Ez dauke beste tibetarren antzik eta lanik ez daukeneak, bidelapuz biurtzen dira.

Ego-aldean nekazariak bizi dirae-ta garagarra, oloa,garia eta olakoak artzen dabez, baiña maisterrak edo errentariak dira.

Gaisoak osatzeko, landaretara jotzen dabe eta sorginkerira be bai. Oraintxe asi dira osagaiak saltzen lurralde aretan.

Erbesteko gizonakaz artu-emon gitxi nai izaten dabe.


Euren jaiak ainbeste diralako, joko-mota asko dauke jai orreitarako, kukaiña be bai.

Bide-ertzak lorez beterik ikusten dira, ikuspegiak eder biurtzeko.

Lentxuago “Edurretako gizon iguingarria” (el abominable hombre de las nieves) bizi zala an esaten zan eta “Yeti” izena emoten eutsoen, baiña iñok ez dau iñoz aurkitu.

**OLAZAR´tar Martin´ek**

# GAURKOAK ETA AURRETIKOAK



Munduan diran bizidun guztien artean, gaur talderik aundiena zomorroak dira, talde arrigarria!

Bost-bat milloi mota dirala diñoe jakitunak, pizti guztien artean lautik iru

Aundienak 20 zm. daukaz luze eta txikiena gure begiakaz ikusi-eziña da.

Talderik ederrena dira pizti guztien artean: koloreak, milla eratako jantzia, bakoitza berean aberatsak. Esker-rak geienak bizitza laburrekoak dira-na, Batzuk ikutuz beste barik ilten dira!

Ba-dagoz euren artean soiñu-joleak, antz artzailleak, saltari trebeak, alkimi-lariak, edo aztia.

Gogoratu, esaterako, soiñularien artean euliak, eltxoak, erleak, kura-bioak edo txirri-txirriak.

Zorriak bere pixua baiño bi milla aldiz aundiagoa eroan leike bizkarrean, eta iñurriak bera baiño iru aldiz aundiagoa dan arria eroaten dau. Batzuk odol-edaleak dira, beste batzuk zomorrojaleak.

Batzuk alkartuta bizi dira, aundi ta txikiak, euren mailletan. Iñurri batzuk alkar-lanean gizakiak baiño obeto erata dagoz. Zergaitik erleak sei-ertzeko tokiak egiten dabez.? Lanik gitxien daukenak diralako.

Etxea zaintzeko gudariak eukiten dabez eta euren erri-mugak artu be bai,

menpekoak eta serbitzailleak daukez...

Gizakiak milloi bat urte edo geiago daroaz munduan eta gizakia agertu zanerako, emen eroiezan ogeta amar milloi urte iñurriak ondo eratuta. Esker-rakaurerapena egiten ez dakiena, Non legokez osterantzean?

...

Baiña ikusi daigungure gaurko zomorroen aurretikoak edo asabak nortzuk ziran!

Lamarck jakintsuak (1744-1829) Darwin'enaurreapen edo eboluzioari aurrea artu eutson gauza askotan eta auxe esan eban: Toki baten gertatzen danak bizidunen gorputza aldatu egiten dau. Gero Darwin'ek (1809-1882) onartu eta osotu egin eban aurerapenaren bidea: Indartsuenak eta gerorako egokitzen diranak irauten dabe bizidunen artean eta

aitzetan agertzen diran fosiletatik jakin geinkepizti bakoitza noizko dan. Orre-lan orain 500 milloi urtetribolitak bizi ziran. Oneixek dira zomorroen asabak.

Trilobita izenakgorputzean "tri" iru zati daukezala esan nai dau: Burua, bularra eta sabela. Uger egiten onak ziran eta bi milla mota dira ezagutuak.

Uretan ebiltzan lez, egobakoak ziran eta orain 280 milloi urte urten eben uretatik, agirian geratu ziran lur-arloetara, esaterako Australia'ren sortaldera, Afrika'ren ipar-aldera, Siberia'ren iparraldera, Laurentia edo Kanada ta Alaska aldera

Ur-oxin orreitan aldaketa aundiak egin ebezan bai landarak eta bai piztiak.

Karbonifero-aldian landarak oso aundiak ziran eta zomorroak lurrera zabaldu ziran eta emen egaz egiten be ikasi eben, egodun biurtu ziran batzuk.

Lenengo edo primaria aldian, (500'etik 200 milloi urtera bitartean) zomorroak txiki biurtu ziran eta narraztiak egin ziran aundi. Or amaitu ziran trilobiteak.

Bigarren edo sekundaria aldian (200 milloi urtetik 100 milloi urtera) zabaldu egin ziran lurrak, geiago agertu eta gaurko antzera geratu ziralako. landara loradunak agertu ziran eta euren ostean erleak eta mintxiak.

Iñurriak zenbat urtean emen dagozen ez dakigu. Zarrenak orain dirala 30 milloi urtekoak dira, baiña orreik ez dira lenengoak.

OLAZAR'tar Martin'ek

**BIZKAITARRA-BIZKAIERAZ\***



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

**ALDIZKARI ONEK  
BIZKAIKO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU**



# EUSKAL KULTURGINTZA GALDAKAO'N

1953n. urtetik eta 1955n. urtera arte Julia Garcia de Diego andreak musika, pianu eta soinu edo ekordeoi irakasletak emoten ebazan, eta denpoereagaz euskal dantzak eta balet apur bat be irakatsi eban. Lau neskatxu eta mutiltxuk dantzaren bat egin eben-eta.

1958n. urtean "Grupo infantil de acordeón" sortu eban eta 1956n. urtetik 1961n. era arte Usansolo'n egoan soñu-taldeak Bizkaia ta Gipuzkoa aldean be soñua jo eban.

Urte asko dira barri au Benito Iragorri albokariaren alabea zan Amaia k emon eustala. Eskerrik zuri Amaia.

**GALDAKAO'KO ERRONDAILLA.**- 1914n. urtean gitarra, laud eta bandurria jotzen eben taldekoak guztiz zazpi musikuz ziran. 1934n. urtean eta 1936n. ean beste errondaila bat egoan, gitarra, biolin, bandurria eta laud soñu-tresnakaz jotzen ebenak osotutakoa. Oraindik urte asko ez direla, Zugatzu'ko monjetan ari edo kuerdazko soñu-tresmak irakasten ziran.

**"ZALETASUN" ABES-BATZA:** Izen orregaz 1928n. urtean korala sortu eben. Gerrearen ostean euskera berba egitea be galazota egoan lez, "Grupo Coral de Galdakano" izenagaz jarraitu eben eta urte asko geroago "Zaletasuna" izenagaz geratu zan.

**BERTSOLARIAK.**-Galdakao'n beti izan dira tabernarako bertsolariak, baita gerra-ostean be, aurretiko batzuk geratzen ziralako eta Bengoetxe auzoko Lekue'n tabernan, ni gogoratzen nazenetik, 1955n. urtetik aurrera batzen ziran bertsolariak.

**EUSKERA IRAKASTEA.**- Gerra-aurretik be Galdakao'n ba-egozan euskera irakasleak. Auzunetako eskoletan euskeraz irakasten zan. Bengoetxe'n nire amak -oraindiño bizi da- dana euskeraz irakatsi eban, baita euskal kantak be. Zugatzu'ko eleizan, umeai aita Txalbaud josulagunak be euskeraz abesten irakasten eban. Gerra-ostean 1967n. urtetik lortu zan lenengo ikastolea gure Galdakao onetan. Gerrea amaitu zanean Euskal Erriko euskal eskola edo "Escuelas de Barriada" itxi egin ebezan, erdere zala-ta eta euskerazko izenak mailluakaz pikau ebezan eta desagertu egin eben, euskeraz berba egitea be galazota, inpernuko dabruak Madrilen menpean egozala.

Galdakao'n, Kurutzele eleizearen sakristiko tokietan D. Jabier Agirre-Amailloa abade jauna buru zala, euskera irakastak emoten ziran eta parroko abade jauna geure buru zala baita Bengoetxe'ko eleizatxuaren tokietan be, D.-

Luis Aburto jauna laguntzaille genduala, geuk be zortzi personaren artean Bengoetxe'ko eskola eta eleizatorrean be euskera irakastak doain emoten genduzan.

Geroago Galdakao'ko Udal Euskaltegia be ba-daukagu. 1983-84n. urteetan Zugatzu'ko Dinamita lantegian andra bik irakasten eben euskera, batak enpleduai eta besteak langilleai. Langilleak danak ziran ofizialak eta bereiztuak. Au be esan bear da.

**TXISTULARIAK.**-1910n. urtetik ainbat izan dira, bai gerrara arte eta bai gero be. Txistulari-taldea eta dantzari-taldea batera 1910n. urtean sortu ziran Galdakao'n.

Dantzariak San Iñasio ta Santa Barbara egunetan dantzatzeko sortu ei ziran. Taldearen banderea Dinamita Lantegiko joskilleak egin eben.

1933n. urtean txistulari taldea osotu zan Banda de Musica taaldetik, Anjel Arostegi (oboe-jotzaillea), Luis Barandika (Errekinto- jolea), Sabin Zenarruzabeitia (Silbote-jolea ta eleizan armonioa jotzen ebana) Eli Bustinza atabala eta palu biko tanborra jotzen ebana, Sabin Zenarruzabeitia jaunak silbote edo txistu aundia jotzen eban eta 1933n. urtean iraillaren 10n. egunean, Sabin barik bigarren maillan Bergara errian jo eben eta Galdakao'tarrak lenengo saria irabazi eben. Silbotari ta guzti, lenengo maillan Errementeriko txistulariak Liza-so'rekin lenengo saria irabazi eben. Bergara'ko txistulariak naiz ta onak izan, ez eben parte artu txpaelketa euren errian zalako.

Gerra-ostean Galdakao'n lenengo txistulari-taldea Doroteo Egiarte'k sortu eban. Doroteo'k "Zaletasuna" izenagaz seikote kantari bat sortu eban eta geroago zortzikotea be bai.

Doroteo Egiarte'gandik Maksimo Moreno jaunak irakasten ebazan musikea eta txistua, baita Banda de Musica'ko soñu-tresna joleak eta eleizako kantariak bat eginda, tripleen taldea lortu eben.

**TXISTULARIAK.**-Galdakao'n gerra-ostean txistua jotzen lenengo ikasi ebana Bixente Elorriaga izan zan eta onek Luis Barandika txistulariagandik ikasi eban.

Jose Luis Egiarte'k Maksimo Moreno jaunagandik ikasi eta gero oberatu Antonio Errekalde jaunagaz egin eban. Jose Luis jaunagaz musikea askok ikasi gendun, baita Banda de Musica'ko soñu-tresnak erabilten eta txistua jotzen be. Baiña pianua jotzen ikasten Maksimo baiño lenagotik eta gerra-ostean lenengo irakaslea, beintzat Gandasegi'ren eskoleatan Zabalgane auzoko Amalia Rementeria izan zan. Eskola orreitan D. Rufino Otxoa jaunak musikea

## DANTZAK

irakasten eban. Eta guztiok baiño lenago, gerra-denporara arte, musika irakasle D.Tomas Larrinaga abade jauna izan zan.

GALDAKA KO BANDA DE MUSICA.-1887n. urtean sortu zan eta ainbat konkurso eta txapelketetan partu artu eta irakasten be ibilli zan. Sari onak irabazi ebazan.

1974N.URTEKO EUSKAL JAIA.-Egun aretako egitaraua onelantxe asten da. Gerra-ostean Udaletxeak lenengoa erderaz eta euskeraz egin eban eta aixe diño: Ayuntamiento de Galdacano/Galdacano´ko Udala.29 de septiembre, domingo/domeka, iraila 29gn. Extarordinaria fiesta Vasca-Ikuzgarriko Euskal Jaia 1974. Goizeko 9´etan asi eta gaueko 10´etan amaitu zan.

Berton Txistularien erakusketa eta biribilketak be etxalde ta auzunetatik egin ziran.Auspolari ta arraxkolarien (soiñulari ta pandero- joleen) jardun-aldia eta gerosoka-titra ta arri-jasotze-erakusketa. Eguerdirantza txapel leiaketa eta ondoren txiastulari taldeen erestaldi berezia- Arastiko 4´retan Euskal Erri Jakintzako jantzien leiaketa. Gero bikoiteen jota-dantzaketa eta ondoren Andra Mari Euskal DantzaTaldearen

Ekintza goragarria, beste dantza-talde batzukaz batera. Ondoren auspolari ta txistulari soiñuzko dantzaketak eta illuntzean 16 edo 17n. orduan,ikusgarrizko karrozak, auzo guztiak parte artuta. (batzuk kamioetan eginda eta baste batzuk euren traktor eta idi-burdietan eta abarretan eginda) erriko kalerik aundienetatik eta millaka ta millaka ikusle pozik dagozela. Egia ganean txarria eskegita eta odoloste edo mortzillak egiten eta beste batzuk txarriboda zala-ta, jaten.Karrozen asierea Galdakao´ko Banda de

Musica´rena lenengo taldea dala, gero ezpata-dantziariak.

Eta amaitzeko auxe be esan bear dogu:Jaialdiak egiteko, Udalak 15 000 pezeta emon euskuzala. Galdakao´ko Banda de Musica edo ereskin-taldearen biribilketa egin zan azkeanean.

JOSE MARIANO BARRENETXEA



## ENTZUN GAGIZUZ JAUNA

Jaun on bat dago goian,  
danen Jaun ta Jabea,  
zeru ta lurretan,  
ontasuna da, berez,  
munduaren aurrean  
giza-arduretan.

Danen Aita izanik,  
beren eskuz garoaz  
bizitza onetan,  
guk ikusi bagarik,  
maitasunez, garoaz  
bizitz arloetan.

Zerua eta lurra  
bere-bereak ditu  
maitasun guztiaz,  
lurreko kutunena  
gizonen bizia da  
zerutar ondasunaz.

Lurreko izakiak,  
sagar, madari, prisku,  
guri guri, dagoz,  
zerutar laguntzeak  
indartuten, bai, ditu  
guztien poz giroz.

Gizona deika dago  
beren ezer ezean  
Jaungoiko Jaunari,  
maitasun ta argia  
nai ditu lur onetan  
bizitz lagungarri.

Erantzuna ba-dator  
zeru-goitik lurrera  
maitasun guztiaz,  
gizonaren bizia  
bedeinkatzen dau Jaunak  
gogorik onenaz.

## SAGARDIA

Sagardia neguan,  
illun, aurkituten da  
beren izatean,  
otzak menperatuta,  
zugatz adarrak dagoz  
neke astunpean.

Zerura aditurik,  
odei batz nagusiak  
ausarta dabiltzaz,  
trumoi dardar nausiak  
Tximistondo zeartuz,  
mendiz mendi doaz.

Udabarriaren pozez,  
sagardia ba-dator  
adarrak argitzen,  
aguzkira begira,  
aizea, gogor, dabil  
bizia indartzen.

Oi, udabarri joria,  
gero ta ederrago  
dagersku ortzian,  
usain gozozko lorez  
bete sa sagardia  
eguzki aurrian.

Sagar garau nausiak  
urrezko biur dira  
sagasti orleian,  
gozoa darioe  
gizonen onerako  
zelai zabalian.

Oi, zein gozo dagozan  
sagarrik ederrenak,  
bitxi biurturik,  
egiz, bikaiñak dira  
madari ta prisku  
udeak ondurik.

PAULIN

## SEBASTIAN MENDIBURU (1708-

Oiartzuarra dogu baiña amazazpi urtekoa zala sartu zan Jesus'en Lagundira eta eleiz-ikasketak amaitu ebazeanean Iruña'ra bialdu eben eta antxe emon eban bizitza osoa, gramatika, filosofia ta teolojia irakasten.

Bere barruak errietako misiolari-lan betetzea eskatzen eutson eta Naparroa'ko erri guztietan ibilli zan orretan.

Iru liburu mardul osotu ebazan euskeraz: 1) Jesus'en biotzaren deboziñoa: 387 orrialde eta or barruan dator Larramendi'k egin eutson eskutitza. 2) Otoiz-gaiak: 88 gogarte dira eta atsegiñez irakurten da.

3) Euskaldun onaren biziera: Jesus'en biotzaren klofradikoen araudia da baiña ba-ditu olerki batzuk be. Gero dator bat.

Orixe'k diñoanez: "Euskal idalerik oberena au uste dute zenbaitek eta Kikero euskalduna izena ipiñi diote. Axular'en ondo-ondoan behintzat tokia merezi du. Euskera garbiagoa du oiartzuar (onek) Urdazubitarrak baiño, ez orde ugariagoa".

Ona emen zaritxu bi aztertu dagizuzan. Lenengoa Euskaldun onaren bizitza liburutik artutako Aita San Ignazio'ri olerkia:

Ba-dakizu, San Inazio,  
Etsai anitz dogula,  
Guztiekin peleara  
Noiz-nai aterako gera,  
Zeu ba'zatoz gugana.

Izan ziñan zu Loiola'n  
Ez bein, bitan jaioa:  
Bein soldadu mundurako,  
Urrengoan zerurako;  
Len eta gero Euskalduna.

Non da gerra, non da etsaia  
Zu izutu zinduena?  
Armak, lantzak, suak, garrak,  
Etsai guztien indarrak  
zure kontra zer dira?

Bigarrena itz lauz dator, au Otoiz-gaiak liburutik artua:  
"Ez dator nola-nai, ez, bere aldarera, ta gero, gu komuniatzen garanetan, gure baitara gure Jesus maitagarria; bere irabazi edo merezimendu ta ondasun guzi-guziekin dator batera ta bestera; guzi-guziak dakarski, andik eman-aez urbiltzen zaizkan guziei, oriek aldiartu ar-ala.

Anitz dira ta andiak, bai segurki, gure Jesus'en irabaziak eta merezimentuan"

## ERROMANTASUNA/ROMANTICISMO

Kant filosofo aundiak batu ebazan bere aurretiko pentsabideak oreka batera bultzatuz: Buru-argi bidekoak esaldi analitikueta, zentzun-bidekoak sintetiko a posteriori esaldietan eta Aristoteles'en bidekoak sintetiko a posteriori esaldietan. Gaiñera beste zabaltasun aundi bat agertu eban errazoi teoriku eta praktikuagaz.

Baiña Kant il zan 1804n. urtean eta laster barriri banatu ziran pentsabide barriak. Iru gogoratuko doguz onein artean: Erromantasun-bedeoak Europa osoan, burubideko edo idealistak Alemania'n eta zentzun-bideoak Angland'en.

Erromantikuak biotz-beroak ziran eta Kant'en ideibideari biotza gaiñeratu eutsoen, buru argiarena ez dan mundu ori alboratuta geratu ez daiten.

Baiña erromantikuak ete dauke filosoforik? Bai, eta lengo buru-bidea aberastu egiten dabe eta ametsa gaiñeratu.

Rousseau'k berak be buru argiagaz batera eukan erromantasuna, Goethe idazlea zan filosofoa baiño lenago, gaiñera ideiak be agertzen dauz. Schiller'ek askatasuna goratzen dau, baiña Frantze'ko iraultzaren ondoren latzak bildurtu egin eben eta "ez gagoz askatasunerako gertatuta" esan bear izan eban, kontzientzia oiñarri lez artuta.

Schiller'en gai bereziak dira oneik: gizona buru-argia ta sentipena, biak, osotzen dabe, eta neurrigabetasunera

garoaz ez mekanikeriak, organikeriak baiño. Orregaitik erlejiño-arloan panteismorantza doa. Erdi-aroko gaita daben elebarriak maite dauz eta antxiñako jakintzak ez dauz aitzuten, Grezia'koa naiz Ameriketakoak. Aberri bakoitxaren edestia goratzen dau eta ortik etorri dira azpaldiko abertzaletasunak, iñoz kaltegarriak be izaten diranak. Eder-lanak asko goratzen dauz mundugintzaren antzekoak diralako.

Baiña filosofian zer dakarre erromantikuak?

Schleiermacher (1768-1834) da nagusi eta onek batez be erlejiñoaren filosofia agertzen dau, eta, berak ezetz esan-arren, panteista edo dana-jainko zalea da, dana, sentipen naiz intuiziño, erlejiño-bidera daroalako eta erlejiño guztiak bat egitea da beronen ametsa. Or azterten dauz erlejiño guztiak eta onena kristiñauena dala diño. Ez, gero, dogmaz beterik datorren kristiñautasuna, sintesis bat agertu eta Jainkoaren menpean bizi izatea agertzen daualako baiño. Azkenean erlejiñoa baiño arago doa eta berak egindako jainko bat dauko.

Bide orrek geroago filosofi-zaleak "nihilismo"ra daroaz. "Nihilismo" edo "ezerezkeria" berba au Jakobi deritxon filosofo erromanzaleak sartu eban jakin-zaleen artera.

Or daukagu ba, erromanzaleen filosofia, sakontasun aundi bakoa, baiña Europa osoan zabaldu zana.

**EUSKERAZALEAK**

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

# BBK

# txartelak



## **BBK txartelek opariak gordetzen dituzte**

Ordaindu erosketak edozein  
BBK txartelekin eta, hilero,  
itzelezko opariak irabazi ahal  
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**bbk<sup>2</sup>**